



Jean Michel Etchecolonea

EGOERA

Euskal esparru komunikatibo propio eta sendo baten gabezia agerikoa da. Ez dago euskal agenda komunikatiborik. Esparru komunikatiboan kanpoko agenteak dira erreferente nagusiak eta egoera hori areagotu egin da atzen hamarkadan digitalizazioa eta sare sozialak medio. Nazio izan nahi badugu, ezinbestekoa da esparru komunikatibo propioa sendoa izatea, oinarriak alor publikoan zein pribatuan dituen. Espazio horren ezaugarrietako bat euskara izango da.

Alor publikoan EITBren eraberritzearen premia inork gutxi auzitan jartzen du gaur gaurkoz. 1982an sortuz geroztik, euskararen, teknologien eta komunikazio ohituren bilakaerak ezagutu gabeko paradigma berri baten kokatzen dute EITB. Euskara ulertzeko gai zirenak populazioaren herena izatetik, erdia baino gehiago izatera igaro dira. Beraz, balizko ikus-entzulegoa

izugarri hazi da. Internet eta digitalizazioak, 82an bi katerekin lehiatetik, ehundaka katerekin lehiatzera eramane du. Kalitatezko hedabide publikoak eta hauek bete beharreko funtzio soziala izan behar dira EITBren gaineko eztabaidako oinarriak. 82ko EITBren Legea zaharkitua geratu da, beraz, egungo errealtateari egokitutako eredu bat garatzen eta ezartzen hasteko garaia dela deritzogu. Halaber, kontuan hartu behar dira ekimen pribatuko euskal ikus-entzunezkoak eta bilatu beharko da elkarlan publiko-pribatua ikus-entzunezkoen alorrean euskal esparru komunikatiboa sendotzeko

Bestetik, euskarazko tokiko komunikabide-sare zabala dugu. Horieta batak erreferentziazoak beren eskualdeetan. Tokiko komunikabide horiek euskal esparru komunikatibo osagai ezinbestekoak dira eta horiek babestea eta sendotzea lehentasunezkoa da.

HELBURUAK

Herri bertebrazioa ezin da ulertu, herri horretako hedabideentzat, ezaugarri propioekin propio egin gabeko lege marko eta arautzailerik gabe. Are gutxi, hizkuntza gutxitua eta burujabetza prozesuan murgildua dagoen herri batetaz ari bagara.

Euskal esparru komunikatibo propioa eta sendoa osatzeko urrats eraginkorrak egitea hurrengo lau urteetako helburu nagusia da.

NEURRIAK



1 EUSKAL ESPARRU KOMUNIKATIBOA IRUDIKATU ETA ARAUTZEKO BEHARRA.

Euskal esparru komunikatiboa bere osotasunean egituratu eta arautzea lehentasuna da.

Azterketa eta diagnostiko sakona metodologia parte hartzaile baten bitartez sektore asko bilduko dituen hausnarketa estrategikoa burutzeko.

Hedabieden esparruan Lege propioak garatzea.

Hedabideen Euskal Behatokia sortzea.

Ekimen publiko eta pribatuaren arteko elkarlana eta osagarritasuna bultzatzea.

Euskarazko Bikoizketa Agentzia sortzea

Erakunde publikoen publizitate-irizpideak berraztertzea, euskarari eta euskarazko hedabideei presentzia handiagoa emanez.



EITB ERREFERENTZIA ETA ATXEKIMENDUA.

EITB taldea, erreferentziazko hedabide bezala agertu behar da ordezkatzeko duen gizartearen aurrean. Kalitatezkoa, gizartearen atxekimendua berreskuratzen joango dena.

EiTBeren eredia berraztertzea: antolaketa, kateen izaera eta funtzioak, programazioa, euskararen normalizazioan duen funtzioa, ikus-entzunezko sektorearekiko sinergiak, finantzazioa, ...

Kate eta medio guztietan euskararen presentzia gehitzen joateko plangintzak. Saihestuko da euskal hiztunen adierazpenak gaztelaniaz egitea.

Ikus-Entzunezko sektorea indartu: Plan estrategikoak/Kontratu Programak.



EITB ENPRESA IZAERA ETA EGITURA

Efizientzia eta talde izaerak dituen abantailak probestu behar dira. Urteetan eraman den pertsonal politika irauli egin behar da. Horiek sortu dituzten egoera kudeaezin eta askotan injustuei amaiera emateko.

Talde osoaren plantilla zehaztu.

Euskara lan-hizkuntza izan dadin urratsak egingo dira eta, ondorioz, EiTB taldeko langile guztiak euskaraz aritzeko gaitasuna izango dute.

Multimedia izaera sakondu. Konbergentzia

Arduradun nagusiak izendatu eta hauen funtzioak arautzeko Gestoreen Sistema deiturikoa aldatu.



EITB INFORMAZIOAREN EKOIZPENA ETA TRATAERA

Lerro editoriala, informazioaren trataera dira hein batean hedabide batek gizartearen aurrean izango duen oneritziaren erakusle nagusia. Hedabide publikoa, ordezkatzeko duen gizartearen erakusleho izan behar da; neutrala eta anitza.

Informazio Agentzia propioa sortu.

Albistegietako ardura postuak lortu ahal izateko, sarbide profesionala.

Ikus-Entzulearen Babeslearen figura.



EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK

Euskal esparru komunikatiboan euskarazko hedabideek zutoina izan behar dute.

Euskarazko komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko urte anitzeko hitzarmenak.

Euskarazko eskualde mailako komunikabide multimedialak sustatu.

Ikus-entzunezko alorrean emisio-lizentzia guztiek euskarazko eskaintza duina izango dute, barrutiaren euskaldunen indizearen arabera.



DIGITALIZAZIOA ETA INTERNET.

Ongizatearen irizpide berdintzaileak sare digitalaren erabilera eta eremura hedatzen hasteko unea da. Zerbitzu Unibertsalaren izaera sakontzen hastekoa komunikazio elektronikoen esparruan.

Internetarako sarbidea oinarrizko eskubide gisa aitortu eta sarbidea bermatzeko bitartekoak sortu.

Wifi emisioetatik babestutako guneak izendatu ikastetxe, parke eta ospitaleak zein inguruak.



SOFTWARE LIBREA

Software librearen esanahia gizartean zabaltzea eta bere abantaila eta onurak hedatzen hasteko hezkuntzan jarriko dugu indargunea.

Ikastetxe guztietan software librean hezteko bideak ireki.

Administrazio eremu guztietan software librearen ezarpen eta erabilera sustako dugu.